

Erljioa eta Kultura

Joxe Arregi*

HEMENeko zenbaki honek “Euskal erlijio” delakoa duelarik hizpide, atari gisako bat eskaini nahi lukete ondoko orrialde hauek. “Euskal erlijio delakoa” idatzi dut, esamolde horrek zer adierazten duen ziur ez baneki bezala. Eta ez dakit. Eta nork daki, jakin, “euskal erlijioa”, baldin bada, zer den?

Noski, “erlijio eskandinaviarraz” edo “erlijio eslaviarraz” hitz egitea bezain zilegi da “euskal erlijioaz” hitz egitea, aspaldiko zerbaitez ari garen heinean. Noiz da, ordea, aspaldi? Eta gaur, zer da gaur “euskal erlijioa”? Behinolako euskaldunek egin ohi omen zuten bezala, Anbotoko koban Mari, Lurraren jainkosa goren gurr-

tzen nahiz iturri ondoetan lamiak beneratzen nahiz Ama Lurraren altzozan bizi diren asabak ohoratzen dituzten “pagano berri”ena ote da “euskal erlijioa”? Edota gaurko euskaldun kristau edo musulman edo bahaiak ote dira “euskal erlijioa”ren ordezkari, nahiz eta Madrileko kristau, musulman eta bahaiengandik hain gutxi bereizten diren? Chenrezy, Buda zerutar gupidatsuari pujak tibeteraz errezatzen dizkiotenek ere “euskal erlijioa” bizi ote dute? Izatekotan ere, “euskal erlijio” asko dira, bistan denez. Gai labainkorra inondik ere. Gai hori bezain labainkorra da, eta berarekin hertsiki lotua, “erlijioa eta euskal kultura” delako auzia. Auzi bera funtsean, eta korapilo bera.

* Deustuko Unibertsitatean irakasle

Orrialde hauetan ez diot, ordea, auzi horri zuzenean helduko. Alegia, ez dut aztertuko zertan datzan “euskal erlijioa”, zerk ematen dion “euskalduntasuna” erlijio bati edo erlijio-adierazpen batzuei. Ondorioz, ez dut jorratuko ere zerk lotzen eta zerk bereizten dituen “euskal kultura eta erlijioa”¹. Urrunagotik edo orokorragoan ariko naiz: kulturak erlijioa nola baldintzatzen duen erakutsi nahi nuke or har, historia lekuko harturik, eta gaurko egoera begi aurrean dugula, eta galdegai harturik ea gaurko egoerak biharko zer norabide erakusten digun guztioi, kristau zahar nahiz “pagano berri”.

1. Nolako kultura, halako erlijioa

Jakina, alderantzizkoa ere egia da: nolako erlijioa, halako kultura. Izan ere, nola iturburuko ur gordeak argitara bidea, erlijio-bizipenak ere – gizabana-koarena nahiz taldearena izan– adierazpideak bilatzen eta sortzen baititu: munduarekiko begirada, izakiekiko harremanak, ezaguna adierazteko hitzak, izendaezina izendatzeko izenak, denboran eta espazioan ez galtzeko zedarriak, bizitzari nondik norakoa emateko sineskizunak, bizipozari eragiteko eta eguneroko larria arintzeko errituak, bizikidetzat sustatzeko arauak... Hots, erlijioak kultura sortzen du, transzendentziaren iturri sinboliko agortezinak zulatuz. Areago esan daite-

ke: erlijioa –kontzeptua bera hain alde-anitza eta mugagaitza den arren, eta ulertzen den gisan ulertzen dela ere–, kultur eragile nagusietako bat izan da beti, ez beti onerako. Zenbat eta erlijioa biziago, hainbat eta kultur eragileago.

Baina alderdi hori –erlijioa kulturaren sortzaile dela, alegia– ukatu gabe, beste alderdia azpimarratu nahi nuke hemen: kulturak baldintzatzen ditu erlijioaren adierazpide guztiak. Geure bizipenak (beldurrak, pozak, tristurak, desirak) hitzaren bidez edota bestelako zeinuen bidez azaltzen ditugu, azal ditzakegun heinean. Hitzak, ordea, hizkuntza baten barnean lekutzen dira, gramatika jakin bat dutela euskarri; zeinu guztiak, bestalde, hizkuntza sinboliko gutxi-asko egituratu baten baitan kokatzen dira. Beraz, erlijio-bizipena adierazten denean, inguruko kultura kolektiboaren hizkuntzan eta zeinu-sisteman adierazten da nahitaez, iturbegiko ur gordeak bere argitako bidea inguruko paisaiaren arabera egiten duen bezala (mendian behera bizkor edo ibar lauan bare, harri artean kantari edo ihi artean mutu).

Kulturaren osagai nagusi dira erlijio-adierazpenak: ipuinak eta mitoak, sineskizunak eta ospakizunak, errituak eta jaiak, aginduak eta debekuak, egutegiak eta tenpluak, dantzak eta kantak, jainkoak eta heroiak... Nork uler deza-

¹ Ik. J. Arregi, “Erlijioa eta euskal kulturaren auzia”, in *Hemen* 13 (2007), 31-44 or.

ke kultura unibertsala –euskal kultura barne– erlijioaren ekarpena gogoratu eta nolabait ulertu gabe? Ez da posible, eta ez dut ulertzen nola uka dakiokkeen lekua erlijio gertakariari eskolan eta unibertsitatean (inolako konfesionaltasun eta pribilegiarik gabe, noski). Baina, aldi berean, erlijio-adierazpen guztiak kulturalki baldintzatuak dira goitik behera, kulturari lotuak daude ezinbestean².

Besteak beste, bizibideak eta ekoizpen-sistemak baldintzatzen dituzte erlijio-adierazpenak, eta ikuspegi hau azaldu nahi lukete bereziki orrialde hauek. Gizarte baten egoera ekologiko, ekonomiko eta politikoei barne-barnetik atxikiak daude erlijio guztiak euren sineskizun, erritu eta barne-antolaeran. Eta historiak erakusten du, bizieraz eta ekonomiaz antzeko diren gizarteetan antzeko erlijio-sistemak garatu direla; egoera berdintsuetan eta arazo berdintsuei erlijio-erantzun berdintsuak eman izan dizkiete gizarte desberdinek³. Gizarte ehiztari eta fruitu-biltzaileak, garai eta lurralde desberdinetan bizi izan arren, antzeko mitoak eta sineskizunak sortzen ditu; berdin gizarte nekazariak. Eta gizarte industrializatuak? Gizarte

industrializatu modernoak erlijioaren kritika zorrotza ekarri du, eta erlijio tradizionalen kinka larria eragin, erlijio tradizional guztiak industrializazioaren aurrekoak baitira.

Eta gaur? Zer dakar gaur bizi dugun gizarte postindustrial edo post-modernoak, informazio globalizatu eta azeleratuaren gizarteak, inoiz baino konplexuago bilakatu zaigun bizierak eta munduak, modernitate ustetsuaren hamaika amets suntsitu eta zerumugan hainbat hodei beltz erakusten dizkigun gure garai hauskorrak? Ez dakigu etorkizunaren berri, baina bistan da erlijioaren eta erlijioen iturria ez dela agortu, misterioaren eta transzendentziaren egarri dela berriro gizakia, zientzien garapenak ez duela errealitatearen misterioa hustu, baizik eta areagotu, dena ederrago eta zaurituago ageri zaigula, eta espiritualtasuna behar dugula arnasari eusteko.

Aurrerago itzuliko naiz horretara. Jarrai diezaiozun oraingoz puntu honetako hariari. Nolako kultura, halako erlijioa, beraz. Nolako ekologia, nolako ekonomia, nolako gizartea –hitz batean, nolako kultura– halako erlijioa. Eta

² Ik.E. Durkheim, *Las formas elementales de la vida religiosa*, Alianza, Madril 1982; M. Weber, *Ensayos sobre sociología de la religión*, Alianza, Madril (hiru liburuki) 1983 hur. Ik. baita ere: M. Eliade eta J.M. Kitagawa (arg.), *Metodología de la historia de las religiones*, Paidós, Bartzelona 1986; M. Meslin, *Aproximación a una ciencia de las religiones*, Cristiandad, Madril 1978.

³ Ik. B. Lincoln, *Sacerdotes, guerreros y ganado: un estudio sobre ecología de las religiones*, Akal Universitaria, Madril 1991; H. Steward, *Theory of Cultural Change: The Methodology of Multilinear Evolution*, University of Illinois Press, Urbana 1955.

alderantziz ere bai, neurri batean: nola-ko erlijioa, halako ekologia, ekonomia eta politika, halako kultura. Gizarte batek lurrarekiko duen harreman bereziarekin, ekoizpen-sistemarekin, ekonomiarekin eta gizartearen beraren barne-antolamenduari estu loturik daude erlijio-sineskizunak, errituak, erakundeak⁴.

2. Gizarte ehiztari eta fruitu-bil-tzaileen erlijioak

Ahal zutena ehizatuz eta lurrak bere kasa ematen ditun fruituak bilduz bizi izan ziren gizakiak ehundaka mila urtetan zehar, K.a. 9.000 urte arte gutxi gorabehera. Eta oraindik ere badira horrela bizi direnak hiru lurraldetan banaturik: *Australian* (iparraldean eta erdialdean), *Afrikan* (Kalahari-ko basamortuan –san eta boskimanoak– eta ekuatore-basoan –efe eta mbuti pigmeoak–) eta *Ameriketari* (lurralde artiko-tik –inuit edo eskimalak– Patagoniaraino, Kanadako, Amerikako Estatu Batuetako eta Amazoniako lurralde zabalak barne). Madagaskar, Malaysia, Indotxina eta Indiako zenbait bazterretan ere aurki daitezke.

Giza taldeak txikiak dira derrigor –ehun kidetik behera oro har–, egoitza finkorik gabe batetik bestera joan behar baitute, ehiza eta fruituak non, hara. Familiaren mugak ez dira zeha-

tzak, talde osoa baita familia zabal bat. Hain talde urria izanik, eta hain bizi-modu soila, kideen artean ez da apenas hierarkiarik; badute norbait buru, baina taldea bera da nagusi, eta kideen artean ez dago mailarik. Emakumeak biltzai-leak dira, eta lurreko fruituetan adituak; gizonezkoak, aldiz, ehiztariak.

Ez dira lurraren “jaun eta jabe”; lurraren jabegorik ere ez dute gehiengotan. Beraiena da lur guztia, baina beraiek ere Lurrarenak dira. Lurrarekiko harreman estuan, sinbiotikoan bizi dira. Lurrak mantentzen ditu, eta Lurra maite dute; Lurrak zaintzen ditu, eta Lurra gurtzen dute. Australian, putzutik ura atera behar dutenean, harri bat jaurtitzen dute lehenago bertara. Ez da superstizio hutsa (ura pozointsua izan ez dadin, hurrengorako putzua lehor ez dadin...); naturarekiko begirune-ezaugarria ere bada: ura ateratzeko baimena eskatzen diete uretako espirituiei. Dena da sakratu.

Oso erlijiosoak dira, baina ez dute erlijio-erakunde handien beharrik. Ez dute denbora osoko erlijio-bitartekorik edo erlijio-espezialistarik; ez dute, beraz, “apaizik”; nornahi izan daiteke bitarteko. *Xamanak* (hildakoen espirituekin harremanetarako eta “beste munduaren” berri jakiteko dohaina dutenak) dira taldekiderik inportante-

⁴ Ik. M. Corbí, *Religión sin religión*, PPC, Madril 1996. Ikuspegi hori kontuan izanik egina da F. Díez de Velasco, *Hombres, ritos, Dioses. Introducción a la Historia de las Religiones*, Trotta, Madril 1995. Baita ere J. Arregi, *Oinatzak bidean. Erljioen historia*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo 2004.

nak (aholkulari, jakintsu, igarle, sendalari), baina taldearen kontrolpean.

Ama Lurra beneratzen dute, eta Ama Lurra eta oreka ekologikoa zaintzea dute erlijio-lege nagusi. Eta arau eta debeku gehienek horixe dute jatorrizko helburu: herrialde artikoetan, debekatua dute okela egostea edo erretzea (okelaren bertute guztiak aprobetxatu behar baitira, gainerako dieta oso murrizta delarik); haurri luzaroan bularra eman behar zaio, eta haurra izan ondoren ezin da luzaroan sexu-harremanik izan (taldea gehiegi ugaltzen ez dadin); ohikoa da gaixo jaiotzen direnak hiltzea, baita zainketa gehiegi behar duten agureek heriotza eskatzea ere; abere-kumeak eta ernari dauden abereak hiltzea debekatua dago, eta ehizakiari barkamena eskatzen zaio (“ehiza mistikoa”). Ehizatik bizi dira, hau da, hiltzetik, heriotzatik; ehizakiaren bizia bezain sakratua da, beraz, ehizakiaren heriotza.

Gizarte hauek ba ote dute “Jainko”rik? Hitz honen esanahia zehazki mugatzea bezain zaila da galdera horri erantzutea: zenbat kultura, hainbat “jainko”... Nolabaiteko izaki goren bat bada horrelako kultura askotan (Patagonian, Afrikan nahiz Australian), eta “Espiritu Gorena” Ipar Amerikako indiarren artean, baina hildakoen espirituak eta “heroi zibilizataileak” askoz garrantzizkoago dira “izaki goren” hori baino.

Nolanahi ere —eta hau da orrialde hauen haritik azpimarratu nahi dudana—, Lurra bera bezain tinkoa eta iraunkorra da guztia: denbora guztiak baino lehenago izan zen bezalaxe da orain den guztia, eta hala izan behar du betieran. Denbora bera ere baino lehenagoko antzinatea —*dream time* deitzen diote Australiako aborigenek— kontaktzen dute mitoek, eta beti halaxe izaten jarrai dezan kontaktzen dira mitoak belaunaldiz belaunaldi; betidanik izan dena betiko izan dadin egiten dira erritoak, gordetzen dira usadioak, dantzatzen da eta kantatzen da. Lurraren zutoinak sendoak dira, eta egia betikoa.

3. Gizarte nekazarien erlijioak

K.a. 9.000 aldera, duela 11.000 urte, berealdiko urratsa eman zuen gizadiak: lurra lantzen eta hazia ereiten ikasi zuen, baita abereak hazten ere, eta dena aldatu zitzaion horrekin. Dakigula, Mesopotamian gertatu zen aurrena (eta K.a. 6.000 aldera Txinan, geroago Ameriketara, eta K.a. 3.000 edo 2.000 aldera gurean). “Iraultza neolitikoa” deritza, benetako iraultza izan baitzen: ehizakiei atzetik segika eta fruituen bila batetik bestera ibiltzeari utzi eta leku batean finkatu ziren taldeak, eta erruz ugaritu. Eta buztzingintza, otarregintza, etxegintza, hirigintza, merkataritza eta harrezkero gelditu ez den “gintza” luzeari ekin zioten. Biziera, munduaren ikuspegia, gizarte-

-harremanak eta erakundeak... dena aldatu zen (ez bat-batean, jakina, milaka urtetan zehar baizik). Eta guztia aldatzean, erlijioa ere sakon aldatu zen.

Ehiza utzi eta nekazaritzatik bizi zirenen (direnen) artean eta, ondorioz, euren erlijioen artean badira, noski, diferentzia nabarmenak: ez dira berdinak laborarien eta abeltzainen errituak eta jainkoak (Abel abeltzaina zen, Kain laboraria: *Hasiera* 4...), ez dira berdinak zerutik datorren euria bakarrik edota ureztatze-sistemak baliatzen dituztenen mitoak eta erakundeak, ez dira berdinak antzinateko Ekialdeko hiri handien (Hattusa, Ninive, Nipur, Uruk, Babilonia, Pertsepolis) edo Inperio helenistikoko eta erromatarreko hiriburu erraldoien (Alexandria, Antiokia, Bizantzio, Atenas, Erroma, Milan) edota Europako erdialde eta iparraldeko auzo apalen edota Erdi aroko hirien bizimoldeak, sineskizunak, mundu-ikuspegiak, kultu-lekuak...

Baina ezberdintasun sakon horiek guztiak gorabehera, sakonagoa da antzekotasuna: nekazaritza da kasu guztietan bizibidearen iturri nagusia eta, diferentziak diferentzia, oinarritzeko kultura-molde bera dute: nekazal kultura. Eta, beraz, funtsezko erlijio-egitura bera: nekazal erlijioa.

Nekazaritzak janarien sekulako ugalketa ekarri zuen berekin. Eta janarien gehitzeak biztanleriaren gehitzea

eragin zuen berez. Eta biztanleak ugaltu ahala, auzoak, herrixkak, herriak eta hiriak eraiki zituzten. Hiria, nekazal kulturaren ezaugarri printzipala. Eta hiriaren ezaugarri eta osagai handiak, oraindik orain arte ezagutu eta oraindik ere ezagutzen ditugunak: lanaren bana-keta, artisautza, azoka, eskola, tenplua... Gizarte konplexua da hiria, eta antolatu egin behar du, eutsiko badio, biziko bada. Zerk emango dio batasuna, kohesioa, hezurdura? Autoritateak, horra. Autoritatea da nekazaritzan oinarrituriko gizarteak bizirik irauteko duen baliabide nagusia. Noiz eta nola erein, zer eta nola jokatu, zer ikasi eta sinetsi... norbaitek agintzen du: enperadoreak, erregeak, jauntxo feudalak. Aita santuak, gotzainak, apaizak. Aginpide hierarkikoa eta, beraz, menpekotasuna dira gizartearen eta erlijioaren ardatz. Gizakiak naturaren jaun eta jabe izatera iritsi dira, baina ordainsari latza ordaindu dute: elkarren morroi bihurtu dira.

Eta erlijioari funtzio nagusi horixe emango zaio, besteak beste: ezarria dagoen autoritatea legitimatzea, sostengu eta berme izatea. Erlijioari dagokio gizarteko harremanak arautzea, ordena ziurtatzea, eta bereziki gizartekideen sexu-harremanak kontrolatzea. Horrek guztiak apaizteria ugari, espezializatu eta hierarkizatua eskatzen du, egitekoak asko baitira: apaizei dagokie denbora eta espazioa antolatzea, egutegiak finkatzea, ten-

pluak kudeatzea, kultu egokia ziurtatzea, sineskizunak zaintzea, jokabide morala kontrolatzea... Erljioak ere antolatu egin behar du, gizartea antolatu ahal dezan. Eta kleroa sortu zen. (Erljio guztietako “kleroz” ari naiz, ez kristau kleroz, baina honek ere nekazal gizartearen eta nekazal erljioaren marka darama sorreratik bertatik, eta iraungitako kultura bati eutsi nahi dio). Sineskizunez, errituz eta arauz osaturiko sistema bilakatzen da erljioa: kredo, kultura, kodea.

Eta den oro libre eta den ororen senide egiten duen Misterioa “Jaungoiko” bihurtu zuten, sistema autoritario guztien iturburu eta justifikazio. Dena sortarazten, biziartzten, berriartzten duen Misterio izendaezina izenez mugatu zuten eta irudi erraldoiak eraiki zizkioten. Eta hitzetan eta irudietan ez ezik, harrizko tenplu eder bezain gotorretan atxilotu nahi izan zuten. “Jaungoikoa” egin zuten edo, hobeto esan, jaungoikoak, zerutik lurtean agintzen duten jaun boteretsuak, nahiz eta, dirudienez, Jainko Aita Zeruaren eta Jainkosa Ama Lurraren irudi zehatzezina izan ziren zaharrenak. Jainkoaren edo jainkoen irudiak zehatuz eta mugatuz joan ziren, eta gizaki baten gisako sentiera eta jokaera egotzi zizkio(e)ten: hitz egiten, agintzen, saritzen, barkatzen, zigortzen eta bata

bestea baino maiteago duen “jaungoiko” inoiz gupidatsu eta inoiz gupidagabe bihurtu zuten (zituzten). “Jaungoikoaren” aginduak derrigor bete behar ziren, biziko bazen; urratzen baziren, berriz, Goikoaren barkamena lortu behar zen, damutuz, zigorra betez edo sakrifizioak eskainiz. Sakrifizioak: haziak lurtean hilez fruitua eta bizia dakarren bezala, artaldeko lehen arku meak hilez eta Jaungoikoari eskainiz “erosten” (ziurtatzen) da urteko beste arkumeen bizia; abere-odola aldarean isuriz lortzen da “bekatuen” barkamena edo “bekatuengatik” zor den bizia “berrerostea”. Heriotzatik dator errukia, barkamena, bizia. Hiltzen eta birjaiotzen diren jainkoak ere agertu ziren, inoiz erabat galduko ez den biziaren irudi.

Eta leku askotan, panteoi konplexu eta hierarkizatuak osatu zituzten jainko guztiekin. Erljio indoeuoparretan oso ohikoa da jainkoen “hiru funtzioko” sailkapena⁵: subiranotasunaren jainko goren (Mitra edo Varuna indiarra, Zeus grekoa, Jupiter erromatarra, Odin eskandinaviarra), gerraren jainkoak (Indra, Minerva, Marte, Thor...), ugal kortasunaren jainko eta jainkosak (Nasatya, Quirino, Freya...). Lurreko gizartea nolako, zeruko jainkoartea ere halako. Gizarte hierarkizatuaren ispilu dira jainkoak batetik, baina berme bes-

⁵ I. G. Dumézil, *Les dieux souverains des indoeuropéens*, Gallimard, Paris 1977; B. Lincoln, *Myth, Cosmos and Religion. Indo-European Themes of Creation and Destruction*, Cambridge, MA - Harvard University Press, 1986.

tetik, gizartean ezer alda ez dagin eta denak dagoenean jarrai dezan, goikoak goian eta behekoak behean.

Ez da harritzekoa, gizarte nekazarietan, beste hamaika mito eder eta gogorren artean, “paradisu galduaren” mitoak ere sortu izana, lur oparoak bere kasa eskaintzen zuenetik nekerik gabe hartu eta janez bizi zireneko edo gizaki guztiak berdin eta dohatsu zireneko antzinate zoriontsu hura amestuko balute bezala. Antzina ez zen paradisirik izan, baina nekazariak ezin zuten espero lur hau etorkizunean paradisu bihurtuko zenik, eta iraganera begira bizi behar.

Begira diezaiegun gaur egun ezagutzen ditugun erlijio handiei. Nekazal kulturaren (edo kulturetan) sortuak dira denak, eta nekazal kulturako idazkiak dituzte oinarri; nekazal kulturari loturiko sineskizun, erritu, erakunde eta araei loturik jarraitzen dute, lehenari atxikiak.

4. Erlijioaren krisia gizarte industrialean

XVIII. mendearen amaieran, aro berria zabaldu zen Mendebaldean: industri aroa. Noski, gizartearen gehiengoak nekazal kulturaren erroturik jarraitu zuen XX. mendearen erdialde-ara arte eta gehiago; zer esanik ez landa-lurraldeetan (pentsa dezagun jaiotze eta hazi ginen baserrietan), baina baita

herri eta hiri askotan ere. Dena den, beste biziera bat eta beste mundu-ikuspegi bat abiatu ziren eta galgarik gabe zabaldu.

Kulturaren eta erlijioaren oinarriak mugiarazi zituen Mendebaldeko industrializazioak. Fabrika bihurtu zen gizartearentzat ekoizpen-toki nagusi, ez lurra. Lurrak bere misterio sakratua galdu zuen eta erruki gabe eta axola gabe ustiatu dugu harrezkero, erraietara inoiz zuzaldu eta zuzaldu.

Espazioak ez du gune sakraturik, ez du mugarik. Tenpluek, hilerriek eta erromes-lekuek antzina-antzinatik zedarrizten zuten espazioa hutsik gelditu da, espazio huts, espazio matematikoko bilakaturik. Ez da “toki sakraturik”.

Solstizioek eta ekinozioek, ilberriek eta ilbeteek, ilgorek eta ilbeherek, urtaroen joan-etorri lasaiak... hor diraute, baina zertarako? Bizi-eritmoa, lan-eritmoa, jai-eritmoa markatzeko ez dute jada balio. Tenpluko leihatilatik sartzen den argi-printzari edo obeliskoren itzalari erreparatu beharrik ez dago, urte-sasoari eta orduari igartzeko. Makinak neurtzen du denbora, ez naturak, ezta gizakiak ere. Makinak ez du atsedenik behar. Makinak ez du jai egiteko "denbora santurik" behar.

Eta denok jarri gara makinaren legera. Ekoizpen industrialak da helbu-

ru, merkataritza lege. Ekoiztu eta ekoiztu, irabazi eta irabazi. Konkurrentziako enpresa jaten ez badugu, berak jango gaitu. Irabaziaren eta kantitatearen erresuma ari gara eraikitzen.

Industrializazioaren ondorio nagusia, autoritatearen desakralizazioa izan da, eta horrek zuzen-zuzenean erasaten dio erlijio-sistema osoari. Agintariak ez dira ustezko “jainko” baten mandatari, zeruak hautatuak, gizartearen beraren ordezkari baizik onenean, eta botere-usurpatzaile eta gizartearen zapaltzaile txarrenean (eta gehiengotan). Autoritatezko idazki, arau eta erakunde erlijiosoek ere ez dute, beraz, garaian garaiko gizarteak eta kulturak dutena beste autoritaterik. “Betiko” egia, sineskizun eta arau moralek ez dute balio betikoak omen direlako, behinola “Jainkoak” eman omen zituelako, gaurko gizartean ulergarri, inspiratzaile eta onargarri gertatzen direlako baizik.

Horiek horrela, modernitate industrializatuan ez da erlijioaren beharrik bizitza oinarritzeko, mundua ulertzeko, elkarbizitza sendotzeko eta arautzeko. Oraina eta geroa ez ditu iraganak erabakitzen. Erljioa, berriz, iragana da. Paradisua ez da iragan galdua, irabazi beharreko etorkizun berria baizik. Eta erlijioa bera da paradisura bidean oztopo nagusi. Sineskeria huts da erlijioa, lo-belar alienatzaile, menpetasunaren eta

zapalketaren emaitza, eragile edo bermatzaile.

“Askatasunaren garaia hasi da”, iragarri zuen modernitate industrialak. Libre da gizaki bakoitza pentsatu nahi duena pentsatzeko eta egin nahi duena egiteko, ondoan duen gizakiaren esku-bideak beste mugarik gabe. Eta geure esku ditugu libre izateko baliabideak. Zientziak eta merkatuak konponduko dituzte giza arazo guztiak, psikologiko nahiz fisiko, politiko nahiz ekonomiko. Paradisua iristeko dago eta iritsiko da. Eraits ditzagun orain arteko aldare guztiak, eta eraiki diezazkiogun aldare berriak arrazoiari eta etengabeko aurrerapenari.

Baina aldare berri horiek ere sakrifizio-leku bilakatu dira tamalez. Berrehun urteren buruan, industrializazioaren, modernitatearen, aurrerapen azeleratuaren kontraesanak eta mugak bistan dira planetaren zaurietan eta hainbat herrialderen miserian. Neurrigabeko irabaziaren eta ekoizpenaren legeak eragiten ari diren hondamendiak izugarriak dira. Mugarik gabeko ekoizpenak, kontrolik gabeko irabaziak, solidaritaterik gabeko kontsumoak amildegiaren ertz-ertzerak ekarri gaitu. Makineria izugarri eta ase-ezina ari da norbanakoak, herriak, espezieak irensten. Gero eta gutxiagoren irabaziak gero eta gehiagoren galera dakar. Ereduaren globalizazioak erakutsi digu ereduaren beraren funtsezko arriskua, are porrota.

Gero eta argiago dago, bestalde, zientzia positiboak eta teknika guztiak ez direla aski mundua "ulertzeko", bizitzaren eta heriotzaren aurrean lasai kokatzeko, oinazeari eta erru-sentipenari aurre egiteko, transzendentzi gosea asetzeko. Espiritualtasunaren egarri gara berriro. Baina antzinako erlijioek balio ote digute bere horretan? Erlijio guztietan zehar edo erlijio guztiez haratago, ez ote dugu erlijio guztien iturrira jo beharko, espiritualtasunera, arnasa beti berrira? Baina nora?

5. Gizarte postindustrialaren erlijio bilaketa berria

XX. mende-amaieran, aro-aldaketa berri baten atarian utzi gintuen industrializazioaren garapenak berak. Horixe gaude. Ekoizpenaren arotik informazioaren arora ari gara igarotzen. Informazioa bilakatu da mundu globalizatuan giltza nagusi, ekoizpena baino areago. Informazioaren inbasioa ari da gertatzen munduko zoko guztietan, hiriburu handienetatik auzorik txikienetara, unibertsitatetik sonatuenetatik baserririk apalenetara. Munduko liburutegi erraldoietan menderik mende hainbeste arretaz gordetako jakinduria guztia datorkigu patrikan daramagun tresnatxo batera, nola litekeen ere ez dakigula.

Milaka urte luzez, xamanek eta apaizek izan zuten –“Jainkoak” emanik–ezagutzaren, egiaren, ongiaren

giltza (eta gure haurtzaroraino luzatu da garai hori gure gizarteko gehiengo zabal batentzat, baserritar nahiz kale-tar). Modernitatearekin batera, gauzak arras aldatzen hasi ziren: arlo guztietako zientzialariak –gutxi batzuk artean– bihurtu ziren egiaren jabe, baina egia hori ez zetorren inongo jainkorengandik; aldi berean, filosofo (“jakinduriazale”) gehienak erlijio-sistemei jaramonik egin gabe hasi ziren errealtateaz eta etikaz pentsatzen. Jakintzaren eta teknikaren garapenak, ordea, guztiz bestelako egoerara ekarri gaitu urte gutxitan: jakintzaren eta iritzi librearen jabe gara guztiok; guztiok gara nolabait zientzialari eta filosofo.

Baina informazioa ugaltzeak ondorio saihestezina dakar berekin: zenbat eta jakintza zehatz gehiago, hainbat eta ziurtasun orokor gutxiago dugu. Ezagutzaren mugak zabaldu ahala, ezezagunaren mugak ere zabaldu egiten zaizkigu. Eta Sokrates zaharrarena gertatzen zaigu denoi gero eta gehiago: “Ez dakidala bakarrik dakit”. Erantzun bakoitzak galdera berriak sortzen dizkigu. Eta hori zientzien munduan bakarrik gertatuko balitz, gaitz erdi. Baina gauza bera gertatzen da filosofien eta etikaren munduan: zer da egia? Zer da ona? Gauza bat dakigu ziur: erantzun guztiak partzialak eta behin-behinekoak direla, eta inork ez diezagukeela eman –ez zientifikoak, ez filosofoak, ez fededunak– behin betiko erantzun beterik.

Konplexutasuna, ziurgabetasuna, erlatibismoa dira gaurko fededunaren ezaugarri. Edozein sinestunek daki modu askotako sinesteak direla munduan, eta modu askotako kristauak, eta erlijioak batere axolarik ez dion asko beste edozein bezain jator eta zoriontsu. Jakina, informazioaren sare gero eta zabalagoan, gero eta ezjakinago sentitzen gara, gero eta ez-segurua, eta aise ulertzen da jende askok erlijioan ziurtasuna bilatzea: dogma seguruak, arau ziurrak, erakunde tinkoak. Baina begiak itxiz eta adimena lotuz bakarrik euts dakioke ziurtasanari, begiak zabaldu orduko ikusten baitugu erlijioak asko eta desberdin direla, eta batak erakusten duena besteak ukatu egiten duela sarri; pentsatzen hasi orduko jabetzen gara, erlijio desberdinek esaten badigute eurak bakarrik direla egiazkoak, pretentsio horretan denak engainaturik egotea dela seguruena. Batak zerrikia jatea debekatzen du, eta besteak zilegitzen, batak eta besteak Jainko bakarraren errebelazio gisa. Bi herri elkarren etsai dira, eta batak zein besteak diosku bera bakarrik hautatu duela Jainko bakarrak, edo berari bakarrik agertu zaiola osoki. Bata ala bestea oker daude, beraz, eta seguru asko biak. Elkarrekiko adeitasun tolerantante eta kritikoa eskatzen digu aniztasunak, elkarren borrokan denok galduko ez bagara.

Horra zer ekarri duten informazioak eta demokraziak erlijioen mun-

dura: mundu konplexu eta anitz honetan, ezinezkoa da garai bateko ziurtasun dogmatikoei eusten jarraitzea. Aspaldiko idazki sakratuek eta formula dogmatikoei, esanahi hertsia eta zurrunetatik haratago, “esan-nahi” berriak inspiratzen dizkigute, zeru-muga berrietara zabaltzen gaituzte. Horrekin batera, erlijio-sistema tradizionalak zartatzen hasten dira, hazia zartatzen den bezala ernamun berria sortadin.

Arestian esan dudanez, munduko erlijio handi guztiak nekazal kulturaren sortuak eta garatuak dira, eta industrializazio garaiko gizarte-moldeek, zientzietatik eta filosofietatik sekulako astindua eman zieten. Ez dira desagertu, halere, ez, baina nabarmen ageri da erlijio horietan zer den funtsezkoa eta zer ez, zer diren forma aldagarriak eta zer forma guztien formarik gabeko arnasa. Mehatxaturik sentitzen dira eta bere horretan eutsi nahi liokete askok, baina alferrik dabilta: hazia ez litzateke emankor izango, formari eusten tematuko balitz. Eta badirudi, 10.000 urteztente iraun duten erlijio-ereduek oraingoan aldatu beharko dutela. Edo bestela desagertu.

Nekez esan daiteke, noski, erlijioa kulturaren “emaitza soila” edo inguruabar sozio-ekonomiko batzuen isla eta ondorio hutsa dela, Marxek eta haren ondoren soziologo askok (E. Durkheim, M. Weber...) esan izan

duten bezala. Ez. Erlijioa kulturaren akuilu eragingor eta berritzaile ere izan da, izan daiteke, izan behar luke; garaiko kultura eraberritu eta eraldatu behar luke erlijioak, loturak askatuz, beldurak uxatuz, arnasa emanaz. Baina nola izan daiteke erlijioa ulergarri eta inspiratzaile, nola izan daiteke eragingarri eta eraldatzaile garaian garaiko eta tokian tokiko kulturaren edo hizkuntzan adierazten ez bada?

6. Euskal kultura eta erlijioa

Gatozen berriro hasierako galdera: zer esan “euskal erlijioaz”? “Euskal kultura” bezain defingaitza, anitza, aldakorra dela esan beharko genuke lehenengo eta behin, edo Euskal Herrian (kontzeptu hau bera ere definitzeko daukagu...) ez dela inoiz erlijio bat bakarra izan, eta are gutxiago beti erlijio bera, edo hasieratik bertatik (baina noiz da “hasiera”?) erlijio desberdinen bidegurutze izan dela Euskal Herria⁶, eta gaur agian inoiz baino gehiago.

Nonahi bezala, Euskal Herrian ere –Adur-etik Ebrora, edo haratago– kultura eta erlijioa aldatuz joan dira historia luzean zehar, biak bateratsu aldatuz, eta beti ere biak elkar aldatuz. Harpeetan bizi ziren ehiztarien erlijioa, nekazarien erlijioa, industrializazio garaiko erlijioaren kritika, informazio globalizatuaren garaiota-

ko bilakaera erlijioso (erlijio-mugimendu berriak, erlijio zaharren baitako berrikuntza-saiakerak eta aurkako joera fundamentalistak)..., hori guztia aztertuz, sumatzen ote dira zenbait “euskal” ezaugarri komun eta iraunkor, euskararen milurteetako historian zehar sustrai eta osagai berak suma daitezkeen bezala? Ez dirudi erlijioaren kasuan hain erraza denik. Besteak beste, “kanpokoen” inbasioen eta “kanpokoekiko” harremenen ondorioz, euskararen gertatutako aldaketak baino askoz ere sakonagoak izan zirelako erlijioan gertatutako eraldaketak.

“Hasieran” zer zen inork ez daki. Hori bai, indoeuroparrak (K.a. 2.000 aldera) baino zaharragoak dira zalan-tzarik gabe Euskal Herriko aztarna erlijiosoak. Gogora ditzagun gure arbasoek, paleolitikoaren azken aldera (K.a. 15.000-8.000 bitartean), haitzuloetako azken zokorik ilunetan harrigarriko trebetasunez eta inspirazioz margotu zituzten fresko miresgarriak. Kobazulo horiek ez ziren bizitokiak, baizik eta santutegiak, non xamanek ehiza mistikoa eta, areago, Lur sakratuaren misterioak eta erritoak irudikatzen zituzten. Ohartaraztekoa da, gisa horretako labar-pintura paleolitikoak aurkitu diren eremu geografikoaren (Altamira, Santimamiñe, Ekain, Atxerri, Lascaux...) erdi-erdian kokaturik dagoela Euskal Herria.

⁶ Ik. J. Intxausti, “Euskal erlijiotasunaz. Zenbait burutapen historiko”, in *Hemen* 24 (2009), 7-22 or.

Nekazal kultura neolitikoan sortu zen Marien kultua, baina indoeuroparrek hona iritsi baino lehen. Mari “Jainkoa” (Jainkosa) ote da, ala Lurraren eta bertako fenomeno meteorologikoen (trumoia, euria, lehortea...) pertsonifikazio hutsa? Ez dakit galderak zentzu handirik ba ote duen, “Jainko” kontzeptuak hain arlo semantiko zabal eta lausoa duelarik. Nolanahi ere, ez du jainko indoeuropar gorenaren antzik, hauek zerutiarrak eta maskulinoak baitira; Mari, aldiz, lurterra eta femeninoa. Euskal mitologiako beste hainbat izaki ere lurrarekin estu loturik ageri zaizkigu: *lamiak* (espiritu ongileak, iturri eta erreketan bizi direnak), *jentilak* (zubiak eta dolmenak gauzez eraikitzen dituzten erraldoiak), *Amandre Eguzki eta Amandre Ilargi* (Mariren alabak biak), *Sugaar* (suge arra, Mariren senarra), *sorginak*...⁷

Baina indoeuroparren eraginak ere zantzu nabariak utzi ditu euskal mitologian eta erlijioan: *Jaun Zuria* Europa Iparraldeko lurralde elurtsuetatik dator; *Akerbeltzek* Cernunnos jainko zelta adardunaren antza du; *Ortzi*, zeruko jainkoa *Thor* germaniarraren eta *Jupiter* erromatarraren ezaugarri nabariak ditu... Hala eta guztiz ere, an-

tzinateko euskal izaki mitiko edo “jainko”en artean –batzuk eta besteak bereiztea ez da erraza– ez da ageri erlijio indoeuroparretan hain hedatuak diren eta arestian aipatu ditudan “hiru funtzioak” (subiranotasuna, gerra eta ekoizpena). Marik, *lamiek*, *jentilek* etab. ere aldaketa handiak jasan zituzten erlijio indoeuroparren eraginez⁸. *Atarrabi* eta *Mikelats*, Mariren seme gisa ageri den bikotea –*Atarrabi* ongia- ren ordezkari eta *Mikelats* gaizkiaren ordezkari– abeltzaintzarekin batera eta kultura indoiraniarrean bereziki garatu zen dualismoaren adierazgarri izan daitezke. Ez dago, beraz, erlijio pururik; sinkretismoa betidanik izan da.

Gure lurraldeetan kristautasuna hedatu zenean –erromanizazioarekin uztarturik hedatu ere– beste hainbeste gertatu zen. Areago, dakigunaren arabera, eraldaketak askoz ere sakonagoak izan ziren. Aurreko erlijio-adierazpenak ez ziren bat-batean desagertu, berriak ezarri ahala, gizarte batek ez baitu erlijioa atorra bezala aldatzen, zaharra erantzi eta berria jantzi. Ez dago batere argi noiz hartu zuen kristautasunak Euskal Herri osoa; badirudi V. eta VIII. mende artean zabalkunde garrantzitsua izan zuela, baina askoz

⁷ Ik. A. Arana, *Euskal mitologiaz. Jentilak eta Kristauak*, Elkar, Donostia 2008; J.M. Barandiaran, *Diccionario de mitología vasca: Creencias y leyendas tradicionales*, Txertoa, San Sebastián 1984; J. Dueso, *La primitiva religión de los vascos*, Orain, Hernani 1996; J.M. Satrustegi, *Mitos y creencias*", Orain, Hernani 1995; E. Sorazu, *Antropología y religión en el pueblo vasco*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián 1979.

⁸ HARTSUAGA, J. I., *Euskal mitologia konparatua*, Kriselu, Donostia 1987.

ere geroago arte ez zela nonahi eta erabat ezarri, landa-eremuetan bereziki⁹. Nolanahi ere, kristautasunaren hedapenak ez zituen (“ez ditu” esan beharko genuke) ordu arteko sineskizun eta erritu guztiak bat-batean desagerrarazi¹⁰. Batzuek bere hartan iraun zuten, kristau sineskizun eta erritu berrien ondoan (zenbat baserri zaharretako atetan ez dugu ikusi izan erramu-adaska bat Jesusen bihotzaren plakatxoari itsatsia, edo zenbat baserrietako ateburuetan ez dira josi geure bistan lizar-egurrez, antzinateko zuhaitz sakratuaren zurez, egindako gurutze xumeak!). Beste batzuk kristau jantziz mozorrotu besterik ez ziren egin (Olentzero-eguzki berriaren jaiotza iragartzen zuten Mariren mezularia?— ez da inoiz Jesusen jaiotzaren iragarle izatera iritsi, eta Eguberri-jai globalizatu bezain merkantilizatuaren “euskal” mezulari bilakatu da dagoeneko). Beste batzuek, aldiz, kristau bataioan sakon murgildu ziren (bistakoa dirudi, Mariren kultura Andre Mariaren kultu bihurtu zela, eta Marien kultu-lekuak Andre Mariaren kultu-leku: hala Begoña, Leire,

Orreaga, Uxue, Arantzazu...). Beste asko, jakina, erabat galdu. Denetik gertatu da, beraz, erlijio batek beste erlijio batekin topo egitean ohikoa denez, kultura batek beste kultura batekin edo hizkuntza batek beste hizkuntza batekin topo egiten duenean bezalaxe. Erlijioa hizkuntza da, eta hizkuntzak etengabe aldatuz doazen errekaak dira, nonbaiteko iturritik nonbaiteko ibaira edo itsaso zabalera.

Judaismoa eta Islama ere aipatu beharko lirateke, nahiz eta ez duten gure erlijioan kristautasunak bezalako markarik utzi, ezta gutxiagorik ere¹¹. Baina kristautasuna bera ere gertakari anitza da ezinbestean, kultura eta indar-korrelazio desberdinen arabera, nahiz eta era guztietako indarrak aniztasuna itotzen ahalegindu eta ahalegintzen diren. Aipamen berezia zor zaio Albretoko Joanak, XVI. mendean—garai modernoaren hasiera—hasieran, eta kristautasuna Euskal Herri osoan nagusitu orduko bestalde—Nafarroa Beherean bultzatutako erreforma kalbindarrari, iparraldean gaurdaino bizirik dirauenari¹².

⁹ Ik. A. Azkarate, “Reflexiones sobre la implantación del cristianismo entre los vascos”, in J. Santos – R. Teja (arg.), *El cristianismo. Aspectos históricos de su origen y difusión en Hispania*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz 2000, 303-324 or. VIII. mendetik aurrera, Santiago Bideko erromesek bultzada handia eman zioten kristautasunaren hedapenari.

¹⁰ Ik. K. Larrañaga, “Proceso cristianizador y pervivencia de rituales paganos en el País Vasco en la tarda Antigüedad y Alta Edad media”, in *Hispania sacra* 104 (1999), 613-622 or.

¹¹ Ik. J. Intxausti, “Islama eta euskal herritarrak. Zenbait topaleku historiko gogoratuz”, in *Hemen* 19 (2008), 57-82 or.

¹² Beste zenbait eliza protestante ere bada gure artean (ik. J.M. Olaizola, *Historia del Protestantismo en el País Vasco*, Pamiela, Iruñea 1992), eta gero eta ekialdeko ortodoxo gehiago, etorkinekin batera.

Bostehun urte igaro dira ordutik. Duela 50 hamar urte, edonork esan zezakeen modernitateak eta industrializazioak ez ziotela gure herrian kristautasunari apenas erasan. Gaur begiratu-ko balu, lanak izango lituzke sinesten eta ulertzen. Kristau elizak hutsik daude, 60 urtetik beherakoez bederen, eta eliz arduradunak urduri dira, urduri eta haserre, gaurko gizarteari eta kulturari purrustadaka, errudun bila eta lehenera itzultzeko ahalegin hutsaletan, konturatu gabe kultura bera ari dela errotik aldatzen. Islama gora doa, baina edonork igar lezake kristautasunari gertatu zaiona gertatuko zaiola islamari ere seguruenik luze baino lehen, gure gizartean behintzat. Zentro budistak, yoga eskolak, bahaiak, mugimendu esoterikoak eta gnostikoak, *Kontzientzia Berriko* taldeak eta taldekak, *Sorginkobako* “pagano berriak”... denetik dago nonahi. Horra gaurko “euskal erlijioa”.

Zer gertatu da? Modernitate eta industrializazio aurreko gizartea gizarte posmoderno eta postindustrial bihurtu zaigu belaunaldi bakar batean. Hiru aro historiko eta hiru garai kultural desberdin berrogei urtetan. Aspalditik zetorren, baina bat-batean bezala gertatu da gurean: gizarteak andanaka muzin egin die mendeetan nagusi izan den kristautasun tradizionalari, baina ez erlijiotasunari. Erljio tradizional guztiak antzinako mundu batean sortu ziren, eta guztiz bestelako mundu bate-

ra egokitu behar dute, edo bestela desagertu.

Asko eta asko dira –gaur ere edo gaur berriro– espiritualtasun bila dabiltzanak, baina erlijio *tradizionalek* ez dituzte asetzen: sineskizun eta dogma tradizional askori ez diete zentzurik aurkitzen, autoritatezko arrazoiek ez diete balio, erakunde zurrinak ezin dituzte jasan, erruaren gainean eraikitako erlijio moralak higuin dute, egia bakar eta behin betikorik ezin dute onartu, izaki guztien ongizatea dute amets, gizarte anitzean orotasunaren misterioan begitantzen dute barneko bakea. Arnasa behar dute. Espiritua.

7. Geure biografia adibide

Zilegi bekit neure biografia aipatzea, nire belaunaldiko gehienon adibide argi delakoan: nekazal kulturaren erabat sustraiturik jaio nintzen (1952) eta hazi; hogeitaz aurrera, modernitatean beratu behar izan nuen buru-belarri, bai teologiaz eta bai bizieraz; baina hogeita hamabost urteren bueltan hasi nintzen jabetzen bestelako mundu bat ari zela garatzen: modernitate garatua, posmodernismoa, informazioaren mundua edo dena delakoa.

Hiru aro historiko eta kultura ezagutu ditut berrogeita hamar urtetan. Gaur ez dit balio hogeitaz urte nituela neukan teologiak. Ez dit balio hogeitaz hamabost nituela neureganatzen saiatu

nintzenak ere. Beti bizi nahi izan dudana bizi nahi dut gaur ere, baina kategoria eta forma higituak atzera

utziz. *Atzean gelditu denaz ahazturik, aurrera jo nahi dut* (Flp 3,13), Jesusen arnasaz.